

## Kontzertu berezi eta jendetsuarekin hasi da Olatu Talka

Gaur, maiatzak 19, hasi da 2017ko Olatu Talka, **inaugurazio** ekitaldiarekin. Donostiako Udaletxeko terrazan kontzertu berezia eta jendetsua izan da. Hasteko, Easo Jazz Orkestrak 20 bat minutuko emanaldia eskaini du. Ondoren, **Musikagelarekin** zerikusi duten **10 banda eta bakarlari** aritu dira haietako batzuen lau pieza eskaini dituzte, Donostialdeko **hainbat abesbatzetako 400 bat abeslarirekin** eta **Easo Jazz Orkestrarekin**.

Bertan aritu diren Donostiako bandak eta bakarlariak hauexek dira: **Los Bracco, Olatz Salvador, Nothing Box, Physis versus Nomos, Les Fous, Autumn, Sara Mansilla & Jon Fernandez, Yo Ciervo, Iñigo Serrulla, Jon Busselo. Easo Jazz Orkestrako 20 kide** aritu dira eta Donostialdeko hainbat abesbatzetako 400 lagun. Hain zuzen, **abiesbatza** hauetakoak: **Aita Donostia, Araoz Gazte, Araoz Gaztetxo, Cum Jubilo, Easo Txiki, Eskola-Gurutzeaga, Ibaiertz, Illumbe, Kantakidetza, Pasaia Gazte, Zaria Gazte** eta **Zumarte**.

Talde hauek guztiak prozesu oso polit eta berezi baten ostean elkartu dira. Izan ere, Donostiako 10 talde edo bakarlari horiek, guztien artean, euren lau kantu aukeratu zituzten eta kantu horiek moldatu ondoren, guztion artean jotzeko eta kantatzeko prestatu dituzte. Horrez gain, denok kantatzeko moduko kantu bat eskaini dute, ikus-entzuleak ere kantatzen jarritz: Itoitzen **Lau Teillatu**, hain zuzen. Hauxek dira ekitaldian entzun diren beste abestiak: **Sayonara (Los Bracco), Zintzilik (Olatz Salvador), Ohm (Physis vs Nomos) eta Twisted Surgery (Nothing Box)**.

Hau guztia posible egin duten zuzendari artistikoak, moldatzaileak eta abar **Gorka Miranda, Eugenio Rubio, Roberto Pacheco, Josu Elberdin** eta **Josu Salegi** izan dira.

Ekitaldiaren aurkezlea Oraitz Garcia izan da.

### Aurretik beste ekitaldi batzuk

Inaugurazioa 20:00etan hasi den arren, aurretik izan dira beste ekitaldi batzuk.

**Egia Segurua, Haurren Egia:** Ekitaldirik goiztiarrena izan da, eta bertan Egiako Aitor Ikastolako eta Maria Reina ikastetxeko haurrek eskolara joateko bide seguruak aldarrikatzeko ekimenak egin dituzte. 190 pertsonen parte hartu dute.

**Udaberrifest-Birziklatu:** Martuteneko Arantzazuko Ama Ikastolako patioan izaera komunitarioko festa egin dute, eta haurrak, nerabeak eta familiak elkartu dira, birziklatzea, bide hezkuntza eta bizi ohitura osasuntsuak bultzatzeko. Martuteneko Hautxokoak, Gaztelekuak eta Etxarrienen antolatutako ekintza izan da, eta auzoko eragile askok babestua.

**Urbanizientziako GeoTalks:** Zientzia kalera ateratzeko ekimena egin da 18:00etan hasita, Groseko Katalunia plazan. Bertan solasaldi interesgarri izan da, zientzia arloko hainbat aditu aritu dira: Stanley Finney, Juan Carlos Gutierrez, Estibaliz Apellaniz, Jon Zulaika, Arantza Aramburu eta Xabier Peñalver. Antzerki eta musika ekimena ere izan da, eta bertan arituko dira Inazio Tolosa eta Esti Curiel (zuzendaria eta aktorea), Ander Hormazuri eta Juanlu Blanco (txalaparta), Maialen Belarde (bertsolaria), Beñat Fernandez (gitarra) eta Josu Maroto (marrazkilaria).

**Kontxa Gaumarket:** Merkatua ere indartsu hasi da. 18:00etatik aurrera 36 postu zabaldu dira Kontxako arkupeetan eta bertan izango dira 00:00ak arte. Bihar beste 36 postu izango dira 18:00etatik 00:00, saltoki horiek ez dira ostiraleko berak izango, beraz, bi merkatu izango direla esan daiteke.

**Rock Kamm Broom!!!:** Musika arloko lehenengo ekimena 18:00etan abiatu da Antiguatik, eta Erdialdeko kaleetan barrena ibili da 21:00ak arte, kamioi gaineko rock doinuak zabalduz. Musika ekimen honen ostean, beste hainbat musika emanaldi izango dira gaur Tabakaleran, Kaian, Saguesen eta Morlansen.